

JAKITURI-DOAIAK DIZDIZ DAGI TERESA DEUNAREN IRAKATSIETAN

(1970'ko iraillaren 27'garrenean, Teresa Ama deunari
Eliz-Irakasle titulua emokeran, Paulo VI'garren Aita San-
tuak egiñiko itzaldia.)

Emon dautsagu, edo obeto, onartu dogu Eleizeak Jesus'en Teresa deunari eskiñitako Irakasle (dotor) titulua.

Santa onen izena, aundi ta berezia, agoz esatea bakar-bakarrik, toki onetan eta une onetan atan be, ainbat eta ainbat gogapen biztu-azoten ditu gure gogo barruan; eta lenen-lenen Teresa'ren irudia dakarsku gomutara: geure aurrean daukagu, bai, besterik ez lako emakume lez, lekaime lez, apal eta lau, penitentziz jantzia, inguruan zabaltzen dauala bere giza-bizitasunaren eta gogo-kementasunarenugarra; orrez gainera, Ordena zar argi baten sortzaille ta barriztatzaille lez agertzen yaku, idazle asmotsu ta goitar, arima bizitzaren irakasle, barru-zale bardin bako ta eragille bizkor. Aundi, bakar, gizatar, zoragarri bai dala irudi au!

Beste ezer aitatu baiño len, beratzaz, Santa onetzaz jardun gurako geunke, edozein ertzetik begiratuta oso jakingarri yakulako. Baiña ez egon zuek orren zain: momentu onetan ez dautsuego Jesus'en Teresa nor zan eta zer egin eban esango; ortarako, bada, santuen auzietan ardua dauan gure Eliz-Alkarteak ain arretaz gertautako liburuan batu dauan bibliografi bikotxa, Santa onen bizitza ta edestia, naikoa litzakez, bai orixe!, oneik itz laburpean egokitu nairik lebilken edonor kikildu ta lur-jorik izteko; emakume arrigarri onek, izan be, sartu gura genduken zeatz-eite ta bereizgarri guztietatik gainez dagiala dirudi. Ez, guk ez doguz oraingoz geure begiak or jarri nai; beste au, oraintxe egin dogun au, aditzera emon gura dogu: Eleiz-edestian josita itxi dogun jazoera au, Jainko-erriaren on-izate ta ausnartzeari eskintzen dau-

tsogun au, ots, Avila'ko Teresa'ri, Jesus'en Teresa deunari, Karmeldar aundiari emon dautsagun Irakasle titulua; auxe da goi-goi jarri nai doguna.

Titulu-ezagutze onek daukan esan-naia

Jazoera onen esan-naia argi dago; egintza eder bat da, asmoz beintzat dizditsua izan gura dauana, Teresa deunaren irudi apal ospatsuaren aurrean ipiñitako lanparargi ixetu bati dagokion antz-irudizkoak euki leikeanik ederrena: dizditsua, bai, Irakasle tituluaren lanparargiak berak bere baitatik botaten dauan erraiñu-sortagaitik, eta dizditsua baita titulu onek beronek guri botaten dauskun beste erraiñu-sortagaitik.

Eta argi-ezpal orren gainean, Teresa deukagu: tituluaren argiak agirian eta guztiz nabarmentsu jarten dauz, Teresak lendik be oparo bereak eta ezagunak zituan balio ezin ukatuak: bere bizitza santua lenengo, balio au ofizialki ezagutua noski, 1622'ko otsaillaren 12'tik izan be —ogetamar urte aurrerago illa zan Teresa Ama—; oso entzute aundikoa izan zan, bai, gure aurretiko Aita Santa Gregorio XV'garrenak, gure karmeldar Teresa Ama, Loiola'ko Iñaki, Xabier'eko Frantzisko, Ixidor Lugiña ta Felipe Neri'gaz batera, Santuen liburuan ezarri eban; eta bere «irakatsiaren gurentasuna» bigarren (cf. Prospero Lambertini, gero Benedito XIV'garren Aita Santua, «De Servorum Dei Beati- ficatione», IV, 2, c. 11, n. 13).

Onela, ba, egiazko doez dizdizka daukagu Avila'ko Teresa deunaren irakatsia, siñismen katolikuaz bat-etortean batez be, arimak argitu ta zeru-bidean eskolatzeko guztiz egokia baita; gainera, beste jakituri-doe bat be ikusi geinke, Santa Teresa'ren Irakasletzaren alderdirik zoragarriena ta era berean ezkututsuenera garoazana, au da, idazle mistiku onegan dakusgun Jainko-argitzearen eragin bizkorra.

Nundik ete yatorko emakume aundi oni bere irakatsietan dauan abe- rastasun arrigarria? Bere ulerpide indarretik duda bage, ta bere arima ta kulturazko erakundetik, irakurtzetik, teoloji ta barru-gauzetan aituak

ziran maixu aundiakaz izan zituan izketa ta autuetatik, bere biotz-be-ratasun arrigarritik, bere buruagazko neurri sendo ta iraunkorretik, bere gogo-ausnar goitikotik; itz batean, berak goitik artutako grazi, doe ta eskerrai emon eutsoen erantzunetik, au da, otoitzerako gertaua ta abe-ratsa zan arima batek artutako goi-indarrari emoniko erantzunetik...

Baiña au ete zan bakarrik bere «irakatsi gurenaren» sorburu? Edo-ta Santa Teresa'gan ez ete dogu jazokunik, egokitzerik egoerarik, aurkitu bear, beragandik ez datozenak eta berak jasoak (sufriduak) baiño? Au da, berak eroanak eta jasanak, nunbait, ezkutu ta mistikuak egi-egiaz, Espiritu Santuaren indar arrigarri batetik datozenak bakarrik? Inondik inora, Jainkoaren kabuzko eragite oi ez lakoa agiri dan arima baten aurrean aurkitzen gara, bete-betea; Teresa'k beragandu egin eban era-gin au, ta gero olan ikasia azaldu egin euskun, zintzo ta ezin obeto, izkuntza eder, lau ta berebizkoan.

Teresa deunaren experientzi mistikua

Korapilloak urgarituaz doaz emen. Egintza mistikuaren jatortasuna arimeak ditun jazoera zoli, samur eta nastuenen artean aurkitzen da; jazoera oneitan, barriz, eragille asko sartu daitekez, eta ikuslea edo oar-lea ardurarik zorrotzena artzeko beartu. Baiña gertakari orreitan bat, giz-arimearen arrigarriak erarik ikustekoenean agertu ta ta guztietan ulertzeko errezena, maitasuna da; onek biotzaren unerik sakonenean os-patzen ditu bere askotako adierazpenik beteenak; azkenez be, alkartea deitu bearko dautsagun maitasuna, auxe baita indar guztiaz gora igoten saiatzen dan giza-maitasunagaz aurkitzera jatsiaz doan Jainko-maitasun gainez egiñaren bidera urtetea; lur onetan bizi dan arimeak Jainkoagaz euki leiken batasunik barruko ta sendoena dozu; ta argi biurtzen da, jakituri biurtzen da: jainkozko gauzen jakituri, gizonen gauzen jakituri.

Eta ezkutu oneitzaz daragoio Teresa'ren irakatsiak; otoitzaren ezku-tuak ditugu. Emen daukagu bere irakatsia, bere dotriña. Zelan ikasi ditun ezkutu oneik? Experientzi-bidez, barru-bizitzari ta aldi berean ekintzari eskiñitako bizitza santuan bizi izanik; bai, arima-doe oi ez

lakoan ixurtzean sufridu ta gozartu batera egiñiko experientzi-bidez. Eskutu oneik azaldu dauskuz Teresa'k, eta ez edozelan gero, ezpiri-tuzko bizitzan argien diran maixuen artean jartea merezi izateraiño bai-zen. Basilika onetan Ordena-irasle lez Teresa'ri jasotako arri-irudiak ez daroa alperrik, Santa aundi au oso-osoan mugatzen dauan idazkuna: «Mater Spiritualium» (Arima-zaleen Ama).

Guzti-guztion oneritxiz, esan daikegu, Santa Teresa'ren doe au —ba-rru-zale diran pertsonen ama izatea, irakasle izatea nunbait—, lendik be onartua izan zan. Ama guztiz lau ta zoragarria, sakontasun mires-garriz beteriko irakaslea. Beragaz eban aspalditik santuen, teologuen, eleiztarren, jakintsuen aoz-aozko eritxia. Guk orain ontzat emoten dogu ta sendotzen, berak, irakasle titulu onegaz apainduta, egiteko indartsua-goia izan dagian bere erlejiño-familian, lurreko Eleiza onetan eta mun-duan, eta betiko ta gaurko mandatu bategaz —otoitz mandatuaz— izan be.

Otoitz mandatu

Argi onek, gaur Santa Teresa'ri ezarri dautsagun Irakasle tituluaz, biziago ta sarkorrago dizdiz dagi gure gain. Otoitz mendatua! Eleiz-semeokana au, liturji otoitzaren erabarrizte ta susperraldi aundi batek kutsuturiko orduan datorkigu; zarata itzelak eta kanpotiko munduaren gurari biziak inguratuta, gaurko bizitz-joragari amore egiñik, lurreko ondasun lillurakorrak eskuratu bearrez, geure arimak, egiazko ondasu-nak galtzeko arriskuan gagozan momentuan datorkigu, etorri be. Geu-gana dator, bai, geure garaiko semeokana, Jainkoaz autuan jarduteko oi-tura ez-ezik, Bera gurtu ta Berari dei egiteko bear-izana ta egikizunaren zentzuna be galduaz goazan garai onetan. Geugana dator arimearen kan-tu ta musika dan otoitz mandatu, graziaz betea ta fedearen, itxarope-naren eta goi-maitasunaren izketara zabaldua. Noiz datorkigu? Geure barrua, bere izaera makal ta ulerkaitzean, aztertu nairik dabiltzanean; ez gero gizatasun naigabetu ta askatuaren barne-oiuak sustraitik atera-teko, onen abere erdi-oartuzko iskanbil loi, griña naspildu ta neke-larri atsituaren garraxiak entzuteko baiño.

Teresa jakintsuaren otoitz mandatu lau ta goitarra datorkigu, ta guri ulertu eragin gura dauku «Jainkoak barne-otoitza egiteko gogoz beteten dauan arimeari egiten dautson mesede ikaragarriak...; nire ustez gogozko otoia ezta ba besterik adiskide modu bat baiño, ta onetan sarri egon oi gara, bakarrik, maite gaitula dakigun Aregaz autuan» (*Bizitza*, 8, 4-5).

Labur: auxe da Jesus'en Teresa deunak, Eleiz-irakasleak, guretzat dakarren mandatu; entzun daiogun, geure-geure egiñik.

Aita Santuak gero, espaiñeraz, jarraitu eban

Beste gauza bi gaiñeratu bear doguz oindiño, gora aundikoak gure eritxiz.

Lenengo gogoan artu bear dana: Emakumetan Avila'ko Teresa deuna da Eleizeak Irakasle (maixu) titulua emoten dautson aurrenena, ta au Paulo deunaren itz zorrotzok aztu barik: «Emakumeak begoz ixillik eleiz batzarretan» (1 Kor., 14, 34); eta onek esan nai dau, gaur be, emakumea ez dagoala Eleizan erakutsi ta ardurazko egitekoetan esku artzeko deitua. Urratu ete da, orduan, Apostoluaren agindua?

Argi ta garbi erantzun daikegu: ez. Egi-egiaz ezta irakatsizko jerarki egitekoak beragaz daroazan titulu bat; baiña era berean nai dogu, onek ez dauala ezelan be adierazten emakumeak Jainko-erriaren altzoan daukan arlo gain-gaiñekoa ezetsi ta aintzat artzen ez dogunik. Besterik da; bera be, bateoaren bitartez Eleizearen soin-atal egitean, eleiztar guztiak daben apaizkunde orren zatikide da, ta onek gai egiten dau, ta beartu be bai, «Jainkoagandik Eleizearen bidez artu eban fedea gizonen aurrean autortzeko» (Bat. II, *Lumen Gentium*, c. 1, n. 11). Eta fede atontze orretan, emakumerik asko, gaillur gorenengoetara elduak dira, euren aotiko itzak eta idatziak neba-anaian argi ta zuzendari izateraiño eldu be. Egunero Jainko-ikutu barrukoan janaritutako argia, baita otoitz mistikuaren erarik jagienetan be; Sales'ko Frantzisko deunak diñoanez, onetara dabe aparteko sena ta trebetasuna. Bizi-modu arrigarrian bizi egiñiko argia, gizasemeen on eta zerbitzurako.

Emakumearen eleiz-arazoa

Batzarrak, orregaitik, Jainko-erria lur gaiñean zar-barriztutzerakoan, andrazkoak, goi-eskerraren bitartez emon leikeen laguntasun bikaiña eza-gutu nai izan dau; ta aldi berean, bere arazoa goi-goi ipiñirik, dei egiten dautso bape duda barik «gizadia jausi ez dadin» laguntasuna eskatuaz, «gizonak bizitzeaz bakezkoak egin daiezan», «munduko bakea onik ateradaiten» (Bat. II, *Emakumentzako Mezua*).

Ez dogu albora itxi nai, bigarren, Santa Teresa espaiñarra zanik; eta Espaiña'k euki be bere aintzarik aundienetakotzat dauko. Aren nor-tasunean, izan be, errez ezagutzen dira jaio zan aberriaren bereizgatasunak: ezpirituzko kemena, sentipenen sakontasuna, arima zintzoa, Eleiz-erriak: ezpirituzko kemena, sentipenen sakontasuna, arima zintzoa, Eleizearekiko maitasuna. Bere irudia, bizi izan ziran mendea arima-loratze ederrez marratzen daben santu ta maixuen aldikada ospetsuan ezkutatzen da. Arei entzun oi dautse eratsu ta apalik; baiña ba-daki, gogozko bizitza betea dauan maixuari dagokionez begi zorrotzez, zelan eurak epaitu be; ta areik be, eurenz, orrelakoxetzat jotzen dabe Teresa ama.

Bestetik, oster, aberri barruan eta mugaz andik Barriztatze aizeak zakar astintzen dira, Eleizearen semeak eurak alkar muturka jarriarik. Teresa'k, egizale zalako ta Maixuaz barru-barruko artu-emon euki, askotariko naibage ta aitu eziñak sufridu bear izan ebazan; ez ekian bere ezpiritua zelan bakera ekarri, batasuna urratutik ikustean. «Asko nekatu nintzan —idazten dau— eta, zeozet aintzalakoan, negarrez eskatzen neutson Jaunari ipiñi egiola ainbeste gaxi esia» (*Onbidea*, c. 1, n. 2). Oinazean egiztatutako Eleizeaz bat-sentidutze onek, indarrak sakabanatuta ikusirik, bere gaztelar ezpirituen sendotasun guztiagaz, Jainko-erria jaso ta zabaldu nai bizitan, gaitz orri arpegiz arpegi jarri ta gogor egitera eroan eban; inguruan eukon munduaren barreneraiño sartzea erabagi eban, begiratu barriztatzailleategaz, sartu be, mundu orri zentzun bat, gozotasun bat, kristau arima bat emotearren.

Bost gizaldi geroago be, Avila'ko Teresa deunak bere ezpirituzko egitekoaren oiñatzak itxiaz jarraitzen dau: katolikutasunaren egarri zan biotz mazalaren oiñatzak, lur-zalekeri guztitik erantzi ta Eleizearen zer-

bitzurako bakarrik zan maitasunaren oiñatzak. Azken arnasa emon aurretik, bere bizitza osoaren laburpena lez, ederto esan eiketan: «Gero ta gero, Eleizearen alaba naz».

Jesus'en Teresa'rentzat ordutixik zeruko zoriontsuak dauken aintza-
ren zantzua ta gozamina dan esan onetan, arima aundi arek Espaiña
guztiari itxitako ezpiritu-erentzia antz emon nai genduke. Baita ikusi
bear dogu bere abotsaren oiartzun egin gaitezkan guztioi zuzentzen daus-
kun dei bat be, berau geure bizi-jarraibide edo ikurrin biurturik, bera-
gaz batera bir-esan daiketan: Eleizearen seme gara!

Geure apostolu onespenez.

Paulo VI garrena



Goazen,
goazen baso barri orretara,
adiskide.

sartu gaitezkan
kerizpeta barrira,
oraindiño ezagutzen ez dogun txoriaren
kantuak
entzutera.

baso barriko
suzko
txori
orrek

erakutsiko
dausku
erre barik ibiltan
arboladoi-moltsoen artetik zian.

jesarri zaite

erreka orren
ertzeko
arri ganean,
eta asi zaite
zure
poema
barria
idazten.

Markue